

**GATAZKEN
ERALDAKETA
POSITIBORAKO
PROTOKOLOA**

2017-2018 IKASTURTEA

SARRERA

Eskolako Elkarbizitza proiektuan, lehentasunez garatzeko hurrengo arloak azpimarratu ziren:

ELKARBIZITZA KOMUNIKAZIO on batean oinarritzen da.


Horretarako eskola komunitatearen estamentu guztien **PARTE-HARTZEA** beharrezkoa da akordioetara eta konpromisoetara heltzeko eta gure erlazioak eta lana era argian arinean eta eraginkorrean antolatzen dituzten **ARAUAK** egiteko. Deritzogu **DIALOGOA** tresnarik hoberena dela **AKORDIOETARA** heltzeko eta **GATAZKA** ikasteko aukera bezala baloratzen dugu, baina horretarako gatazkaren **EBAZPENAK** kolaborazioan eta elkarrizketan oinarrituta egon behar du. Halaber, gure ustean, gatazken **PREBENTZIOA** gela guztietan sistematikoki erabiltzea behar dela pentsatzen dugu.

GELAN AGERTZEN DIREN GATAZKEN AURREKO ERANTZUNA

Gatazkak, maiztasunez, gelan gertatzen dira, edo gelara heltzen dira. Sentsazio batzuk sortarazten gaituzte: denbora asko galtzen dugula egoera lasaitzen, inpotentzia sentimenduak, ...

Ziur aski, krisiaren momentua ez momenturik egokiena gatazkan hezteko. Momentu horretan, behar bada, bakarrik kontrolatu ahal dugu egoera era arinean eta ahoz, baina gatazka ez badugu ebatzen, honek agertu ahal du garrantasun handiagoz.

Gatazkei erantzuna ematen jakiteak gatazketan era esplizituan eta programatuan heztera behartzen gaitu. Eguneroko elkarbizitzan gertatzen diren gatazkak hezteko aukera moduan tratatuz, horien bidez ikasteko era positiboan eraldatzen.



GATAZKEN ERALDAKETARAKO PROTOKOLOA

1. Gatazkaren potentzial hezigarria.
2. Gatazkaren probentzioa.
3. Karaktere hezigarri eta curriculum-arreko akzioak.
4. Ikuspegi hezitzailea edo erreparatzeko modukoak:
 - Kontrola
 - Laguntza
 - Iraintzailearekin jarraitzeko urratsak.
 - Biktimarekin jarraitzeko urratsak.
5. Beste bide alternatiboak:
 - Neurri hezigarriak.
 - Adiskidetzea.
 - Erreparatzea.
 - Familia eremuan zuzentzea.
 - Heziketa- konpromisoa.
6. Heziketa-elkarrizketarako protokoloa.

1.- GATAZKAREN POTENTZIAL HEZIGARRIA

POTENTZIAL HEZIGARRIA

- Erabakiak hartzen eta jokatzeko ikasten dugu.
- Gogoeta bizkortzen dugu.
- Errealitateari aurre egiten eta ezbeharrak gainditzen ikasten dugu.
- Denok IRABAZI ahal dugula jabetzen gara.
- Gu balioesten eta desberdintasunak balioesten ikasten dugu.
- Sormena eta soluzioak bilatzeko trebetasunak garatzen ditugu.
- Geure buruaren gainean eta beste pertsonen buruz gehiago ikasten dugu.
- Elkarrekin gauden denboran hobeto pasatzen dugu.
- Harreman sendoak eta iraunkorrak sortzen ikasten dugu.
- Ikasteko motibazioa areagotzen dugu.

2.- GATAZKAREN PROBENTZIOA

Gatazkaren probentzioaren oinarria :

“Gaitasunak, trebetasunak eta gatazkei aurre egiteko estrategiak garatzen ,heztean datza”. Betiere gataka horiek bakarrik kontraesanak edo antagonismoen hasierak direnean, hau da, lehen faseetan.

Gaur egun gatazken ebazpenari buruz hitz egiten denean prebentzio hitza erabiltzen da, prebentzio hitzaren esanahia ematen duelako ekidin nahi dugula gatazka; prebentzioari esker, aldiz, gatazka agertzen denean estrategiak garatuko ditugu, arazoei aurre egiteko lehenengo faseetan daudenean.

Adierazitakoa planteatzen duen erronka gatazkak aztertzen ikasteko beharrea kokatzen da. Gatazken konplexutasunaz ohartu behar dugu, hau da, gatazkaren sorreraren arrazoiak bilatu behar ditugu. Horrek behartzen gaitu estrategiaz eta trebetasunez hornitzen (irakasleria zein ikasleria) gure egunerokotasunean agertzen diren gatazkak nolakoak diren jakiteko eta aurre egiteko.

Horretarako, oso garrantzitsua da irakasleria ikasleriarekin, sarritan testuinguru desberdinekin, aniztasunetik lan egitea, elkarren artean errespetatzeko eta besteek dituzten banako eta talderako baloreak ikasten joateko. Modu horretan, hezkuntza esparruan sortzen diren gatazka askoren funtsa deuseztatuko genuke.

Aurrekoa kontuan hartuta, gatazkaren prebentzioa hezkuntzan eta prestakuntzan kokatzen dela baieztatu ahal da. Gatazka zer den eta nolakoa izan ahal den jakin behar dugu eta ebazteko jarrerak eta estrategiak garatu behar ditugu.

Zentzu horretan prebentzioak hezkuntza mailan gatazkaren lehen fasean sartzera bultzatzen gaitu, gatazka krisialdi fasera heldu baino lehen.

3.- CURRICULUM ETA HEZIGARRI MOTAKO AKZIOAK

Gure eskolako hezkuntza prozesuan parte hartzen duten estamentu guztien prestakuntza derrigorrezkoa da arlo horietan:

- 1.- Adostutako arauak ezartzea.
- 2.- Gizarte-trebetasunen garapena.
- 3.- Hezkuntza balio etikoetan.
- 4.- Autonomia eta ekimen pertsonala.
- 5.- Gatazken ebazpena era baketsuan eta elkarrizketaren bidez ikasteko planifikazioa.
- 6.- Curriculum irakasgaietan gizarte eta hiritar gaitasuna bermatzen dituzten edukiak sartzea.
- 7.- Ikasgeletako egunerokotasunean integratuta, elkarbizitza giro egokia sortzen laguntzen duten jarduera espezifikoak antolatzea.
- 8.- Ikastetxean parte hartzen duten estamentu guztien koordinazioa egitea.
- 9.- Tutoretza plan bat diseinatzea helburuak eta edukiak elkarbizitzaren hobekuntzan oinarrituta. Pertsonal eta taldeko harremanetan bidera dezan, trebetasun sozio – emozionalak garatu ditzan, bortizkeria aurreikusten dezan gatazken ebazpena baketsuan presta dezan, ...
- 10.- Negoziaziorako eta bitartekaritzarako gaitasunak lortzeko beharrezkoa den prestakuntza egitea.
- 11.- Hezkuntza emozionala eta emozioak nola maneiatu ikastea.
- 12.- Ikasketa kooperatiboaren jarduerak ezartzea.

4.-IKUSPEGI HEZITZAILEA EDO ERREPARAZIOA

Gure ikastetxean, gatazkei ikuspegi honetatik ekingo diegu.

Arauen onarpena eta errespetua oinarrizkoa da elkarbizitzarako eta familiari eta eskolari dagozkien balore horiek umeei irakastea autonomiaren bidetik eta besteenganako errespetuaren bidetik, zigorraren bidetik onartzen delako beldurragatik, ez uste osoagatik.

Ikas prozesu honetan inportantea da bi elementu hauek kontuan hartzea:

- 1.- **Kontrola:** ondo definitutako limiteak jartzea eta printzipioak betetzea.
- 2.- **Laguntza eta irakaskuntza:** ikaslearen laguntza aktiboa egitea eta bere ongizateri buruzko interesa erakustea.

Ikuspegi hezitzailearen bitartez, jarrera desagokiak alderatzen dira eta gaitzesten dira eta aldi berean ikasleen berezko balioa berresten da. Bere funtsa, gatazken ebazpena era kolaboratzailean konpontzean datza. Aukera ematen du gatazka edo arazo batean sartuta egon diren pertsonak biltzeko hurrengorako:

- Sentimenduak partekatzeko.
- Adierazteko nola izan den kaltetuta.
- Plan bat egiteko eragindako mina konpontzeko edo berriro gerta dadila saihesteko.
- Ikasleen artean gertatzen diren gatazketan, ohizkoa da bi paper desberdinak ematea: iraintzaileak eta biktimak. Kasu bietan beharrezkoa da bi elementu hauek nahastea: Kontrola eta laguntza, baina helburu desberdinekin. Iraintzailearen kasuan autonomia bilatzeko (bere buruari arauak jartzen ikasteko gaitasuna lortzeko alderdian) eta autokontrola eskuratzeko. Biktimaren kasuan gaitzateko enpoderamendua lortzeko.

- **Iraintzailearekin jarraitzeko pausoak:**

Kontrolaren aldetik:

1. Argitu zeintzuk diren apurtu dituen arauak.
2. Erakutsi egindako kaltearen inplikazioak.
3. Abiarazi hausnarketa egitera bere jokaeraren ondorioei buruz, erreparatzeko.

Laguntzaren aldetik:

1. Konfidantza eta segurtasun giroa sortzea, baina tinkotasunetik.
2. Argi uztea afektua ez dagoela jokoan.
3. Bere argudioak entzutea.
4. Bere sentimenduei lekua ematea.
5. Gertatutakoaren giza dimentsioa ikustea.

Prozesu honek ez du txikitzen gertaeraren garrantzia baina bai errezten du ulertua izatea eta modu honetan eraldatu eta aurre hartzea.

- **Biktimarekin jarraitzeko pausoak:**

1. Emozionalki biktimari laguntzea.
2. Berak bere arazoaz ardura hartzeko aukera ematea
3. Samindu dietenei aurre egiteko lagundu eta modu honetan egoeraz indartua irtetzea.
4. Mendekoaren desioa uzteko zuzentzea .
5. Ez badira balioesten,rol berria onar dezatela haiei laguntzea.
6. Laburbilduz: biktimak enpoderatzea.

5.- GATAZKA ERALDAKETARAKO BIDE DESBERDINAK

1.-Heziketa neurriak.

2.-Elkar ulertzea.

3 -Kaltea konpontzea.

4.- Familia eremuan zuzenketa.

5.-Bizikidetasunerako heziketa- konpromisoa.

Heziketa neurriak

Neurri hauek ikasleak eta beren gurasoek boluntarioki onartu behar dituzte:

Kontziliazioa

Berarekin dakar:

- Jokaera desegokiaren onarpena eta honek ekarri dituen ondorioak.
- Barkamena eskatzea
- Mindutako pertsonaren onarpena.
- Heziketa -jardueraren bat egitea.

Kaltea konpontzea

Bere jokaeraren ondorioak aitortzea eta eraldatzea, zuzentzea,edo eragindako kaltea konpontzea ,hau da,mindua izan den pertsona ongi geratzeko moduan.

Kaltea konpontzeko moduak:

- Heziketa-elkarrizketa saminduta dagoen pertsonarekin bere inplikazioaren bidez konpromisoak lortzeko.

- Bitartekaritza konpontzailea inplikaturik dauden aldeen artean akordio ondaingarria lortzen saiatzeko.
- Asanblada .Pertsona gehiago inplikatzeko beharrezkoa ikusten diren kasuetan.(familia,eskola komunitatea...), ez protagonistak soilik.

Familia eremuan

Familiaren laguntza bilatzea, horren beharra ikusten denean, jarrerak zuzentzeko, honela zentzu berean jokatu da bai familia eremuan bai eskola eremuan.

Elkarbizitzarako heziketa-konpromisoa

Heziketa konpromisoa ezarri, elkarbizitzarako ezak maiz agertzen diren kasuetan. Baldin eta ikasle partaideak aldatzeko jarrera erakusten badu eta bere familiak laguntzeko interesa erakusten badu.

Heziketa-konpromisoak helburutzat dauka,familiak, irakasleak eta beste profesional batzuen arteko, ikaslekin lanean ari direnak, koordinaketarako bideak sortzea eta proposatutako neurriak ezartzeko laguntzea, bai eskola orduetan, bai kanpoko ekintzetan. egoera hau gainditzeko. Familiaren inplikazioa garrantzitsua da prozesuan,ikasleari behar duen laguntza eskaintze baitio.

Elkarbizitzarako konpromisoa ikasturtearen edozein unean izenpetu ahal da.

Konpromisoa izenpetuz gero, tutoreak Zentroko zuzendariari hedatuko zaio eta honek Eskola Kontseiluari emango dio berri.

Eskola Kontseiluak , elkarbizitza komizioaren bitartez,heziketa-konpromiso eta elkarbizitzaren jarraipena egingo du, Zentroan izenpetuak,beraien eraginkortasuna bermatzeko eta ez ba dira betetzen beste neurri batzuk hartzeko proposatzea.

Elkarbizitza- konpromisoak izenpetzeko irizpideak:

Ikasleen profila:

- Jarrera arazoak erakusten ditu.
- Nahiz eta kostatu eskolako arauak onartzea,elkarbizitza hobetzearen garrantzia ulertzen du.
- Bere jarreraz hausnarketa egiten du.
- Bere jarrera aldatzeko konpromizoa hartzen du.
- Konpromizoa dauden neurriak onartzen ditu
- Arreta mantentzeko eta ikasketetan arazoekiko ikasleak beraien jokaeran sorburua badu.
- Zentroan integratzeko arazoekiko ikasleak.

Konpromizoa ikasleek onartutako heziketa neurria da eta suposatzen du zigorra edo ikastetxetik ez kanporatzearen,elkarbizitzarako arazoak edo jarreraren hutsegiteak errepikatzen badira, aldaketa (aukera) pedagogikoa .

Konpromizoa ikaslearen heziketa berrezkuratzeko planaren elementu antolatzailea izan behar du eta elkarbizitza hobetzeko neurriak batu behar ditu baita bere aurreko jarreraren erreparazioa ere.

6.-HEZIKETA-ELKARRIZKETARAKO PROTOKOLOA

Elkarrizketaren helburua da Irtenbide egokia aurkitzea, alde bientzat, eta ez nork duen arazoia edo nor dagoen okertuta bilatzea.

Heziketa-elkarrizketa lankidetzara, alde guztien onura, ideien eta interesen hartu emanan oinarrituta dago eta irtenbide espezifiko eta orekatuaren bilaketa alde guztietarako ongarria izan dadila;ez dago irabazlerik ez galtzailerik.

IRABAZI-IRABAZI

Elkarrizketa edo bitartekaritza zuzentzen duen pertsonak bileraren hasieran giro positiboa eta konfiantzazkoa sortuko du.Enpatia,elkar-ulertzea ,lankidetzara bultzatuko ditu eta hurbila izango da.

Errudunak bilatzea,kritikatu,.....edo beste pertsona batzuk eredu bezala harturik konparatzea,ez du laguntzen parte hartzeko ezta egoera hobetzeko irtenbideak aurkitzen.

- Gatazkan dauden aldeek, gertatukoaren, beraien bertsioak kontatzen dituzte.Hitz egiteko denbora eta txandaren esku-hartzea orekatua izango da.
- Komunikazio-teknikak eraginkorrak erabili behar dira:entzute-aktiboa,mezuak lehenengo pertsonan,hizkuntza deskribatzailea...
- Bi aldeak entzun eta gero,bilera zuzentzen duenaren eginbeharra :

1. Aldeen arteko komunikazioa erraztea.

2. Gatazkaren komunikazioan sakontzea.

3. Alde bakoitzak bestearen ulertzeko modua ezagutzea saiatzea.

4. Alde bakoitzaren interesak ezagutzea

5. Txarto ulertzeak argitzea.

6. Kaltea eragin duen pertsonak bestearen lekuan jartzea ahalegintzea.

- Aurreko fasearekin,arazoa ulertzea eta hartu emana, amaituz gero,irtenbideak bilatu behar dira eta abantaiak eta desabantaiak aztertu.Irtenbideak inplikaturik dauden bi aldeetatik irten behar dira.
- Azken faseak akordio errealista batera heltzea suposatuko luke,orekatua,proporzionala eta zehatza aldeen artean, norberak onartzen dituen konpromisoak zehaztea eta bere jarraipenerako egutegia ezartzea.

ERANSKINAK

IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

IKASLEEN ESKUBIDEAK

- Heziketa osoa.
- Arreta berehala jasotzeko.
- Ikasle adingabekoen babesa.
- Eskola –errendimenduaren balorazio objetiboa.
- Eskola eta lanbide orientazioa.
- Pertsonaren integritatea, nortasuna eta duintasuna.
- Kontzientzea-askatasuna
- Biltzea, elkartzea eta adieraztea
- Adierazpen askatasuna zentroetan.
- Ikasleak elkartzea
- Parte hartzea
- Informazioa jasotzea
- Aukera – berdintasuna
- Gizarte - babesa

**201/2008 dekretua,
abenduaren 2koa Euskal Autonomia
Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko
ikastetxeetako ikasleen eskubideak
eta betebeharrei buruzkoa.**

IKASLEEN BETEBEHARRAK

- Ikastea
- Prestakuntza-jardueretan parte hartzea.
- Bertaratzeko betebeharra
- Bizikidetzaz erraztea
- Pertsonen kontzientzia-askatasuna errespetatzea
- Eskola-arauak betetzea
- Instalazioak zaintzea